



Adiskide hori,

Lehenik eta behin, COVID-19ak eragindako ziurgabetasunez beteriko egoera honetan besarkada bat bidali nahi dizugu, zuri eta Bagera Elkarteko komunitatea osatzen duzuen lagun guztioi.

Pixkanaka “normaltasun berrira” egokitzen ari gara: bulegora itzultzen, ahal den neurrian elkarteetako jarduera berreskuratzen ...

Izan ere, bizi izan eta dugun egoera honek hainbat ikasbide utzi dizkigu, baita euskararen eta hizkuntza eskubideen esparruan ere. Eta zoritxarrez, ez oso zapore gozokoak: **euskara eta hizkuntza eskubideak bigarren mailan** geratu direla ikusi baitugu.

Horren adibide dira, establezimenduen irekierarekin batera Bagera Elkartek erakusleihoen **hizkuntza neurketetan** ateratako emaitza kezagarriak. Donostia erdialdeko 4 kale nagusietan behatutako 141 establezimenduetatik %65,96 gaztelera hutsez zituzten prebentzioen jarraibideak:

Hizkuntza	Kopurua	Ehunekotan
Euskaraz	6	%4,25
Gazteleraz	93	%65,96
Elebitan	23	%16,31
Gazteleraz + BH	11	%7,80
Hainbat (euskara barne)	2	%1,42
HG	6	%4,26

*Behaketaren emaitzen txosten osatua Bageraren webgunean

Horregatik, *normaltasunera* bueltatzeko bidean gauden honetan, **beste normalitate orekatu eta berdinzaleago bat** behar dugula ikusi dugu, eta horretan **euskarak ere bere ekarpena egin** dezakeela ziur gaude. Euskara ardatz duen gizarte bat, gutxitutakoekiko begirunean eta errespetuan oinarritzen delako; bazterrean dagoenak hobeto ulertzen duelako bazterrekoa. Eta ondorioz, gizarte berdinzale eta demokratikoago bat eraikitze gako da. Ongi dakizue zertaz ari garen, zalantzarik ez.

Beraz, nahiko lan dugu denok norabide berean, elkarlanean eta ilusioz aritzeko!

Bide horretan, elkarte osatzen dugun ehunka bagerakideen laguntza ezinbestekoa izan da eta izango da.

Bidea luzea izango den arren, zure laguntzari esker lortuko dugu.



Lanean dihardugu eta jarraituko dugu...

Mintzalagunak

Konfinamenduan aurrez aurre elkartzeko aukera ez genuenez, mintzapraktika sarean egiteko aukera eskaini genuen: MintzalagunON Sarea. Teknologia berriak baliatuz, bidelariak zein bidelagunak elkartzeko eta euskaraz gozatzeko esperientzia eskainiz. Oztopoak oztopo, guztira 40 talde aritu dira.

Azken asteetan, pixkanaka hasi dira aurrez aurre elkartzen eta ekainaren 15etik aurrera udarako taldeak osatzeko izen-ematea zabalduko dugu. Udan parte hartzeko prest bazaude jarri gurekin harremanetan.

Euskaraldia

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingo den Euskaraldia prestatzeko asmoz, apirilaren 20tik maiatzaren 3ra, *Etxealditik Euskaraldira* ekimena jarri genuen martxan. Egitasmo honek bi helburu zituen: batetik, etxeakoekin eta etxetik ditugun hizkuntza-ohituren gainean pentsaraztea eta bestetik, konfinamenduan euskararen erabilera sustatzea.

Euskaraldia tresna ona dela erakutsi zigun lehen edizioak. Beraz, zailtasunak zailtasun, sei hilabete barru hizkuntza ohiturak aldatzeko bigarren ariketa sozial masiboa egingo dugu. Milaka herritar eta entitate aktibatuko dira eta parte hartzen duten lagun guztiek euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzea da helburua. Eta ariguneak sortzen dituzten entitate guztiek euskararentzako espazioak irabazi eta babestea nahi genuke, urrats sendo eta atzeraezinak eman ditzaten. Egun, horretan ari gara buru belarri lanean.

Haurren etxerako lanetan eta mintzapraktikan laguntza

Konfinamenduaren ondorioz haur eta nerabe askori euskaraz normaltasunez jarraitzeko aukerak murriztu zaizkie. Bagerak konfinamenduan zehar ere euskara geure bizitzen erdigunean jarri nahi izan du, haurrak euskaraz bizi, hazi eta hezi daitezen.

Horregatik, Donostiako zaintza sareetan laguntza hau eskainiko zuten boluntario sarea osatzen ibili ginen beste eragile batzuekin batera. Guztira 30 bat boluntario dabilta lehen hezkuntzako haurrei euren etxerako lanetan euskaraz laguntzen edota euskarazko mintzapraktika saioak eskaintzen.

Bikografiak: bi ibilbide elkarrizketan

Bi saio (online) eskaini genituen: apirilean Ines Garcia (Tobacco Days liburu dendako arduraduna, Dj eta irrati esataria) eta Aitor Etxebarria (Konpositore eta musikaria) elkarrizketatu genituen eta maiatzeko saioan Gorka Otxoa (aktorea) eta Josemi Beltran (Donostia Kulturako Zine arduraduna) elkarrizketatu genituen. Bageraren Youtubeko kanalean ikusgai daude bi saioak.

..... **Atzean Zuloa** asteroko bideoen zabalpena, etxealdian euskaraz kontsumitzeko **baliabideen kutxa** asteroko buletin digitalaren bidez, elkarteko beste hainbat ekimenen lanketa ... dabilen harriari goroldiorik ez.